

UDAN IRAKURRIAK

J. L. DAVANT

Teknikoa nerazue: langile mota berri, «lepo zuri» horietakoa. Baina, jakina, ez gara ogi hutsez bizi. Eskuek eta buru-muinek elgar eskolatu, hezi eta hazi arau gizon egiten gara. Bestenaz aldiz, zimino egoiten, zimino gaizto eta lanjeros gainera.

Ekonomia, ez ote du kulturak manatzen eta gidatzen, gero eta gehiago?. Eta gure burua idiek ildoan bezala eduki behar duguia beti?. Ez al dirogu tarteka lanetik altxa, gure biziari begirada baten emaiteko?.

Lan oporrak hortako ere dira, naski. Ene aurtengo bakantzak frantzesez irakurtzen eta euskaraz idazten pasa ditut.

Euskaraz idaztea, eginbide bezain atsegin zait: ez da hortaz nehor harrituko. Baina ez dezakegu zerbait hutsetik egin, ezertarik krea. Aldiz erlea bezala ar gaitetze, eztiaren gaia lore desberdinetan xurgatuz. Munduan bizi gara, Europan bizi gara Euskaldunak ere. Auzoetako literaturetan zer ikas badukegu.

Arrotz hizkuntzetan frantsesa baita hobekienik eragutzen dutana, frantzes idazleetara jo dut, iturrietara joanez ahal nuen izarian, eta hona zein izan diren jorratu ditudan liburu nagusiak:

1. *Antikitateaz*, Marguerite YOURCENAR-ren «Les memoires d'Hadrien», Folio, Gallimard.

2. *Erdi Aroaz*:

— Anthologie de la poésie occitane, André Berri, Stock + Plus (bi hizkuntzetan)

— Lancelot, le chevalier á la charrette, *Chrétien de Troyes*, Folio junior légendes, Gallimard.

— Héloïse et Abelard, Régine Pernoud, le livre de poche, 5459.

3. *Berpizkundeaz*: La peur en occident, Jean DELUMEAU, le livre de poche, L. 8350.

4. *Oraikoaz*:

— Henri Michaux, in *Poètes d'aujourd'hui*, Rene *Bertele*-ek, Seghers etxean.

— Aragon, in *Poètes d'aujourd'hui*, Georges *Sadoul*-ek, Seghers etxean.

Ez derauzuet baitezpada liburu horien mamiaz kondu xuxen ez osorik emango, baina horietaz etorri zaizkidan sendimendu eta gogoetez ariko nitzazue librok.

I. ANTIKITATEAZ

Marguerite *YOURCENAR*, larri-larria eta bastan, badakigu nor den: Frantzes Akademian sartu berria den lehenbiziko emaztekoa (eta guk Euskal-zaintsa bat noiz dukegu?). Obra nasai baten ama horrek, lan mota guztietarik idatzi du: roman, nobela, entsaio, autobiografia, teatro, poema, itzulpen ...

Itzulpenetarik ikus dirogu Greziaren maitale ta jakile sakona dela, ezen horietan aurkitzen dugu:

— *Présentation critique de Constantin CAVAFY*, suivie d'une traduction intégrale des *POEMES* par M. Yourcénar et C. Dimaras (Gallimard, 1958).

— *La couronne et la lyre*, présentation critique et traduction d'un choix de poètes grecs (Gallimard, 1979). Sorta honetako poemak, Grezia zaharrekoak dira, Homere-tik gure lehen mendeetarainokoak, frantzes bertsu klasikotan emanak, s'il vous plait ...

*
* *
*

«Les memoires d'Hadrien» liburua, eleberri edo roman bat da, baina ber denboran Historia zientifikoa eta poema harrigarria. 1958-an lehentze agertu zenean, literaturako gertakari arraro bat bezala agurtu zuen Frantziako eta munduko kritikak.

«XIX-garren mendeko arkeologoeek kanpotik egin zutena barnetik berriz egitea», hara zer bilatu duen idazleak, Inperadore haundi baten Memorioak asmatuz. Eta egia da Antikitatearen ezagutzeko zinez aproposa eta egokia iduritu zaitala liburu hori.

Gainera, errexki dut irakurri, hain da eder eta gozoki ondua. Baina horrek ez nezala tronpa: axalean gelditu gabe mamiaren hurrupatzeko, bizpahiru aldiz arra leitu beharko dut.

Hor ikusten da, Erromanoen altxagarri bezala, zer indarra izan duen Grekoen kulturak, Hadrien-ek eta M. Yourcénar-ek hain maite, hain berena daukatenak. Hor daude gure kulturaren erroak. Eta horretan murgildurik, gizon baten bizia, gizon guztiek bizitzen ditugun arazo eta problema zorro-

tzekin: zoriona, zoritxarra, lana, poterea, maitasunak, ametsak, apetituak, beldurrak, eta azkenean heriotza. Dena prosa ginaritsu batean, behar den urinaz gozotua.

II. ERDI AROAZ

Anthologie de la poesie occitane

Europako poesiaren hastapenean dago Probenzakoa, hobeki erran Limusikoa, baina berdin balio du: eskualde hortakoak baldin baziren ere trubadur gehienak, dialektoen arteko Lengua d'Oc batuan edo koinean ari ziren.

Lehenbiziko poeta ezaguna dugu Guillaume IX Poitiers-koa, Akitaniako dukea, trubadurren gerizatzalea. 600 izen ezagutzen dira, horietarik zaharrena beraz Guillaume.

Eragin haundiagoa duke oraino haren arra-alaba Alienor, Akitaniako dukesak, ezen Frantzia, Englaterra eta Gaztelako erresumetara hedatuko du trubadurren influentzia. Lehenik ezkontzen da Frantziako errege Louis VII-garrenarekin. Bereziko dira eta laster senartzat hartuko du Henri Plantagenet, Englaterrako errege dateana.

Hastiel aire gertätzen baldin bada ere, beharrezkoa zait familia zenbaiten kronikaño hori, zeren erakusten digu nondik nora koropilatzen diren poesia berriaren hariak.

Lehen ezkontzatik bi alaba izan zituen Alienor gure dukesak (Akitania-koak baiginen ipar aldeko Euskaldunak, parte haundia harturik Akitania pre-romaniko zaharrean, bai eta duk-herriaren sortzean): Marie, Champagne-ko dukesa gaia eta Aelis, Blois-eko andere gaia. Anaiak dirate bien senarrak. Horien koinata Alix-ekin ezkonduko da Louis VII-garrena. Andere horiek hiru korteeetan zainduko dituzte trubadurrak.

Horrela Frantziara hedatuko da poesia kortesa, zaldunaren eta anderearen ideologia karreatuz. Englaterran ere ukanen du eragin bat Alienor-ren arartez; bai eta Gaztelan, beste Alienor baten arartez: hau da gure dukesaren azken alaba, Gaztelako erregerekin ezkonduko dena.

13-garren mendean berriz, Nafarroako errege dukegu Santxo Azkarra-
ren iloba den Champagneko Thibault IV-garrena, frantzes «Trouvères»-etan famatuenetarikoa.

*
* *
*

Baina, bistan da, dena ez dago askazkuntzan, eta orotan sendituko da, erdi aroko poesian, Probenzakoa-
ren influentzia: portuges-gallego «canso»-

an («cantigas de amigo» direlakoetan), Cataluinan (baina bat zauden occitaniera eta cataluinera), Alemainan eta Italian: denbora batez probentzalez idatziko du DANTE-k berak ...

Horrek guztiak ez du esplikatzeko nolaz bat-batean sortu ahal izan den occitaniar poesia distirant eta dirdiratsua. Pentsa daiteke Arabeen influentziak ernatu dela, ezen haiek aitzinetik Andaluzian loratua zuten poesia erotiko bat, zinez irazi, fin, sotil eta miñarda. Ikus bedi bereziki 11-garren mendean Al-Mu'tamid Sevillako erregeren obra: Al-Mu'tamid, poesia - Traducción, introducción y notas de Miguel José Hagerty - Editorial Antini BOSCH, Barcelona.

Ikus bedi ere, oraino aurki badadi, «La poésie arabe, par R.-R. KhaWam, Collection P. S.» (Peirre Seghers).

Hameka garren mende hortan hasi zen Espainaren arra hartzeko kuru-tzada, eta Zaragozako setioan partikulazki parte handia hartu zuten Occitaniako jaunek, bereziki Biarno eta Tolosakoek.

Lancelot, Le Chevalier a la Charrette

Alienor Akitaniakoak badu zer ikus romanaren sortzean ere. Champagne-ko kortea, trubadurren kofoin nagusia izan baitzen, halaber date Kelto edo Zeltoen ganik etorritako literatura berriarena. Alienor-ren ezkontzari esker, Britaina haunditik, sartuko da Arthur erregearen leienda zikloa. Hortaz hobekienik baliatuko den idazlea, Chrétien de Troyes da.

Champagne-ko kortean bizi da eta hango kondesaren manuz ariko da. «Lancelot, le chevalier á la charrette» romana holaxe hasten du: «Puisque ma dame de Champagne veut que j'entreprenne un roman, je l'entreprendrai volontiers comme le peut faire un homme qui est sien tout entier pour tout ce que je puis faire au monde.»

Aitortuko dut horren leitzean puska bat aspertu naizela bultaka, ezen aurkitu nahi niokeen segidarik ez diot beti ediren: halako hiatus eta zilo batzuek batzutan galdurik utzi naute. «Nouveau roman» ala, ordukoz?.

Beste romanik idatzi du Chrétien de Troyes-ek: Tristan, Erec, Cligès, Yvain ou le chevalier au lion, Perceval (bukatu gabea). «Le chevalier au lion» da, omen, egiazko arthuriar eleberria, nik irakurria baino segida gehiagorekiko, baina mementoan ezin edirena.

*
* * *

Dena dela, Europako literaturan sail berri bat ideki du Chrétien de Troyes-ek. Horren lehen aroa, zaldun eleberriaren aroa, Cervantes-ek buka-

tuko du «Don Kijote de la Mancha»-rekin. Baina romanak beti dirau eta sekulan baino indartsuago. Hortaz M. Yourcenar-rek hauxe dio:

«Le roman dévore aujourd'hui toutes les formes; on est à peu près forcé d'en passer par lui. Cette étude sur la destinée d'un homme qui s'est nommé Hadrien eût été une tragédie au XVII siècle; c'eût été un essai à l'époque de la Renaissance». (Mémoires d'Hadrien, P. 340).

Lancelot-ekin bukatzeko, hortan ediren dutan onena: zalduneriaren eta literatura kortesaren sortzeaz, romanaren atarrian itzultzaileen eskuz emaiten diren xehetasunak eta argibideak. Hortarik zer gelditzen zaigu?. Emaztekiaren irudi frango idealista bat eta, behar bada, maitasun pasionea.

Hau Occidentearen ontasun propioa genuke, literatura kortesari esker 12-garren mendean asmatua. Hala dio bederen Denis de *ROUGEMONT*-ek, eta itxurazko gauza da. (L'amour et l'occident, L'Express, 12-18 Avril 1971). Aurki daiteke in: Français, 1ère. Terminale, R. FEHR, Hatier Paris 1976 (PP. 38-40).

Heloise et Abélard

Holako pasione oso baten historia dugu, hain zuzen ere, «Héloïse et Abélard» liburua. Baina hor emaztea izan zen lehenik eta gehienik maitatu zuena. Ber denboran ikusten da aro hartan, ondotik ukanen duena baino hobea zela emaztearen status-a: ikasketak egin zituen Héloïse gazteak, kasik Abélard bezain jakintsu agertzen zela, nahiz oso gaztea zen. Hortaz ikus daiteke bestalde Régine Pernoud beraren «La femme au temps des cathédrales» liburua.

Ezpirituaren bizi bat bazen 12-garren mende hortan, eta ordutik pausatu dira ondotikako hazkunde guztiaren zimendu eta lokarriak. Alta bada, kristau munduan ez ziren oraino ezagutzen Antikitateko autoreak eta bereziki Aristoteles, Arabeen bitartez etorriko zaiguna eta ondoko mendean San Tomas Aquin-ekoak bere pentsakeraren hazkurri eta oinarri eginen duena.

Beraz, dialektikari esker, Greko zaharrek aurkitutako arrazoinaren funts ez-ezagunak bilatu nahi ditu 12-garren mendeak. Ez baldin badu osoki ardietsiko ere, horri buruz urrats haundiak eginen ditu eta geroari buruz gogoia trebatuko du, Berpizkundeko haziaren hartzeko gai eginez bere lurra.

Azken ohar bat: apezpikuen biltzar batzuetan, heretikotzat ekarriko dira Abélard-en proposamen zenbait. Eta halere, Cluny-ko komentu batean bizia bakean bururatuko du Abélard-ek, gaizki pentsatzen zutenak ez baitzituzten oraino bizirik erretzen, ondoko mendeetan eginen duten bezala.

III. BERPIZKUNDEAZ

Urrun daude urrun, ene «baccalauréat»-eko humanitateak. Baina gogor-
ratzen zait letrak zinez maite nituela eta bi gizon haundi hor dauzkat ezin
ahantziak: Rabelais eta Ronsard, biziaren ikuspegi optimista batez oparoki
orratuak.

Oroitzapen gozo eta dirdiratsu hortarik urrun gelditzen da gaur aipatuko
dizuedan liburua, «La peur en Occident» deitzen dena. Zer mamuren
beldurra zuten gure arbasoek?. Gauza berri oro, itsasoa, gaua, arima herra-
tuak, emaztekoa, izurritea, *munduaren akabantza*, sorginak, debrua ... hara
gehienik izitzen zituzten indar eta ustekeriak.

DELUMEAU-ren arabera, Berpizkundan zuten beren oldar eta indar
guztia hartu beldur horiek. Bi arrazoin mota edireiten dizkie: batzuek
historiazkoak, besteak psiko-kulturazkoak.

Historiak erakusten digu zein iluna izan zen Erdi Aroaren bukaera.
Oroitzapen gertakari larrien zenbaitzuek: ehun urteko gerla, pesta beltza,
Elizaren zatiketa haundia bi Aita Saindurekin, Turkoen erasoa, arrazoinik aski
bazen beldurtzeko eta munduaren akabantza bazetorrela pentsatzeko.

Laster gertatuko da Amerikaren aurkitzea: uste zen baino askoz ere
zabalagoa da mundua, eta paganoz betea. Amerikaren eta Turkoen artean,
setiatuak bezala dago Europa, orain oso ttiki eta hertsia.

*
* *
*

Beste gertakizun lazgarri bat: **PROTESTANTISMOAREN SORTZEA**.
Bere akabantzara urrats haundiz doanaz geroz mundua, Eliza arraberritu
behar da, hastapeneko garbitasun hartara erakarri behar da. Hori da protes-
tant demiurgoen xedea. Ez dira batere liberalak, kontserbatzaile puristak dira.
Har gatik uste gabea iraultzaileak gertaturen dira, zeren asma ez zaitzaketen
ondorioak dakartza examen libroak: kontzientziaren askatasuna, indibidua-
lismoa, liberalismoa, bat bederaren inizatiba, eta horiekin kapitalismoaren
hazkundera. Hots hortik sortuko zaigu gaurko gizartea.

Akabantzaren beldur bera susmatzen da Eliza katolikoan. Horrek gai-
nera bere burua setiatuak senditzen du. Gogor erasoko du erlisione berria
eta berdin erantzunen dio harek. Gudukan sartuko dira Printzeak ere, zeren
elgarrak loturik daude politika eta erlisioneak. Bere poterea mehatxaturik eta
zutabeetan kulunkan ikusten du gizarte osoak: hortzez eta haginez elgarren
aurka borrokan ariko dira kristau munduaren bi zatiak.

*
* *
*

Ipar Euskal-Herrian, literaturari abioa emanen diote protestantek, Joanes LEIZARRAGA-rekin. Ihardetsiko dio, katolikoan aldetik, Sarako eskolak. Hori guztia onuragarri dukegu mende batez. Baina gero, Eliza katolikoa osoki nagusiturik, konkurrentzia eta nor gehiagokarik gabe, hondatuko da bi mendez euskal literatura, iparraldean bederen..

*
* *
*

Kulturaren alorrean, hausketa bat gertatuko da. Greko eta latinen jakintzaz aberastuko dira eliteak, eta horrela jende xehearen iñorantziak oharturik, hartaz harrituko dira.

Ordurarte, ber kulturaren partaide ziren batzuek eta besteak, nahiz mail desberdinetan, eta elgar entelegatzen zuten. Hara bederen Delumeau jaunaren ikuspegia.

Orain jende xehea zertan dagon ikusiko dute humanistek: gibelatua, ez-jakina, axalez baizik ez bataiatua, paganokerietan murgildua. Eta hala da. Hala zen aitzinetik ere. Baina nehork ez zakien.

Pagano liturgiaren aztarnak, debruari errendatzen diren meza beltz eta Sabatoentzat hartzen ditu jende eskolatuak: ezen ezpiritu gaiztoak baizik ez daitezke laborariek oihanetan ohoratzen dituzten pertsonaia adardunak, sexuz ongi muntatuak (aldiz Priape-ren antzeko fekonditatearen jainkoak eta sinboloak daitezke iduriz).

Beraz denetan aitzina doa debrua, azken erasoaren apailatzen ari daiteke ... Hortik sorginen aurkako auziak: ez bakarrik Senperen, baina Europa guztian non nahi surat botatzen dituzte gaixo sorgin, azti, belhagileak, gutiz gehienetan emaztekiak.

Hara Berpizkundearen itzal-herria, ohituak ginen eki-begiaz bestaldea. Gure Aro honen egite haundia du Berpizkundeak, jakintzaren jauzi harrigarri batekin, mundu berri bat orratzen ari dugu guk ere. Ta ordu hartan agertu zen beldur haundiaren irudirik ere falta ez zaigu: **SORGIN BERRIEN AUZIAK** «Goulag»-ean, hego Ameriketara, heren munduan eta Euskal-Herrian berean ... Akabantzaren beldurra nuklear indarrarekin ...

Abantail bat badugu hala ere. Ber kulturaren partaide dira oraiko jende xehea eta jende ikasia, nahiz mail zinez desberdinetan. Kurutzamen eta harreman ugariak dakartzate komunikabideek eta eskolak.

Baina kasu eta kontuz. Batasun horrek bere zimendua ez luke jarri behar ez-jakinen iñorantziara, goia beheiti erakarrit, demagogia merke bezain ugari batek nahi lukeen bezala. Alderantziz, zola eraiki eta altxa dezagula, kultura landuz eta hedatuz.

Berpizkundeak Antikitateari begiratuz ikasi zuen bezainbat ikasteko badugu Berpizkundetik. Ez dira ez desmodatuak ez zaharkituak Rabelais, Ronsard eta haien aitzineko Italiano, Occitaniar, Arabeak ...

IV. ORAIKOAZ

Henri MICHAUX (1899)

Frantzes idazleetaz ikertze bat berriki egin du «Lire» agerkariak. Honen kudeatzalea Bernard PIVOT dugu, frantzes telebistan «Apostrophes» literatur sailaren arduraduna (ostirale arratsetan, bigarren kadenan). Bost ehun bat idazle, kazetari, erakasle, ikasle ta politikoei galdatu die zein diren «les trois intellectuels vivants de langue française dont les écrits paraissent exercer, en profondeur, le plus d'influence sur l'évolution des idées, des lettres, des arts, des sciences.» (Ikus Le Nouvel Observateur, M. 3063 - 81-05 - Spécial littérature, PP. 16 et 17).

Aise aitzinean datoz Claude Lévi-Strauss (102 botz.), Raymond Aron (84) eta Michel Foucault (83), hiruak «Collège de France» delakoan erakasle; hurrunago Jacques Lacan (51), Simone de Beauvoir (46) eta M. Yourcenar (32), Fernand Braudel, Michel Tournier, Bernard-Henri Lévy eta Henri Michaux (lehenetan agertzen den poeta bakarra) ... puska bat gibeletik René Char (12 botz) ...

Hots, lehen hamarretan, hiru literaturzale: S. de Beauvoir (5.n), M. Yourcenar (6.n) et Michaux (7.n ex-aequo). Harrigarria, egiazki!. Hain eskasa ote da frantzes intelektualen artean, frantzes literaturaren omena?

Bestalde, beljekar ixtorioak maite dituztenentzat, oroitaraz dezadan, ikertze horren arabera, beljickarra dela gaurko frantzes poeta lehena ... Beraz poeta horren piska bat ezagutzera joan naiz.

*
* * *

Berrogei liburu idatzi ditu, gehienak poesiakoak, bertsu librotan. Oso pertsonalak dira gizona eta obra. Ez zen Surrealisten mugimenduan sartu Michaux, ez zuen horrekin hanbateko harremanik ukan. Baina gisa batez, surrealista baino surrealista goa da, haien hitz-joko eta beste abusionerik gabekoa.

Errealitatearen aurka borroka egin du beti, ez errealitatea ukatuz edo ahantziz, baina hori exorzizatuz umore ta ironia pesimista batez. Arimaren aztertze sakona da, gorputzarekin dituen harreman eta koropiloak sondatzen ditu, ametsa ikertzen, drogen esperientzia ere seriooki egiten eta gaintzen ...

Askatzaile da hizkuntzan ere, hizkuntza poetikoa berak sortzen ari baitu eten gabe. Hona haren poema labur bat (P. 117):

Nausse ou c'est la mort qui vient?

*Rends-toi, mon coeur.
Nous avons assez lutté.
Et que ma vie s'arrête.
On na pas été des lâches,
On a fait ce qu'on a pu.*

*Oh! mon âme,
Tu pars ou tu restes,
Il faut te décider.
Ne me tâte pas ainsi les organes,
Tantôt avec attention, tantôt avec égarement,
Tu pars ou tu restes,
Il faut te décider.*

*Moi, je n' en peux plus.
Seigneurs de la Mort
Je ne vous ai ni blasphémés ni applaudis.
Ayez pitié de moi, voyageur déjà de tant de voyages sans valises,
Sans maître non plus, sans richesse et la gloire s'en fut ailleurs,
Vous êtes puissants assurément et drôles par-dessus tout,
Ayez pitié de cet homme affolé qui avant de franchir la barrière vous
crie déjà son nom,
Prenez-le au vol,
Qu'il se fasse, s'il se peut, à vos temperaments et à vos mœurs,
Et s'il vous plaît de l'aider, aidez-le, je vous prie.*

Ecuador.

Hots, eskola guztietarik ate dagon poeta libre bat, poesia libre baten kreatzale. Berak dio «*Mes propriétés*» izeneko liburuaren azken solasean: «Ce n'est pas de la poésie ...» eta «Je ne me considère pas comme un poète». Egia da genero literarioez axola izpirik ez duela.

Osagarri ttipikoa, beti eri edo erdi eri bizi da, bere burua mediku batek bezala-tai gabe ikertuz, aztertuz, estudiatur. Zer dakarkigu poesia-pertsonal horrek?. Berak ihardesten digu berriz «*Mes Propriétés*» liburu horretan:

«Ce livre, cette expérience donc qui me semble toute venue de l'égoïsme, j'irais bien jusqu'à dire qu'elle est *sociale* (nik azpimarratua), tant

voila une opération à la portée de tout le monde et qui semble devoir être si profitable aux faibles, aux malades et maladifs, aux enfants, aux opprimés et inadaptés de toute sorte. Ces imaginatifs souffrants, involontaires, perpétuels, je voudrais de cette façon au moins leur avoir été utile. N'importe qui peut écrire *Mes propriétés ...*» (PP. 42-43).

Urrunegi doa hor Michaux, zeren guti dira beren bizia hain ongi zilatzen dutenak.

*
* *
*

Aitor dut Henri Michaux ez nuela ezagutzen izen eta omenez baizik, non ez zen poema labur baten arartez. Eta oraino ez dut aski ezagutzen. Hortakotz behar bada, nahiago dut Louis ARAGON, aitzinetik ezagutzen nuena eta hain maite ditudan frantzes poetetan lehena zaitana. Lirikoa bezain epikoa, elokuentziaz eta preziosasunez berdin aberats da, nahiz batzutan asexetzen eta kasik aspertzen nauen bere talendua gehiegi bortxatuz, retorika jario batean edo prezioskeriaz.

ARAGON

*Aragon, Aragon, mendi gailurretan
Goiko elurretan zu zaitut gorena
Ronsard-ez geroztik frantzes kantoretan
Zutan da kantari soinu ederrena.*

*Baina maskaturik zertako dabila
Zure itzal hori jaunttoa bezala?
Aztal gorri baino bonet gorri zaitut
Maiteago edo ger' aroko zaldun.*

*Epopeiakari ez dela Frantzia
Gezuratu duzu. Ezpain guztietan
Bizi da zurea, ezin ahantzia*

*Ta lira berdinez oboratuz Elsa
Aire xabar eta bertsu berrietan
Emaztean duzu eman esperantza.*

*Inspira nezala ber Musa bikunak
Herri zatituak eta maitasunak.*